



## Andres Arizkorreta CAF-eko presidentek jasoko du Gipuzkoako Urrezko Domina

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 22/11/2023

"Gipuzkoaren baliorik onenak" ordezkaten ditu Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera.

Andres Arizkorreta 1980-tik da CAF enpresaren parte eta hainbat ardura bete ditu enpresa honetan, izan ere, konpainiako zuzendari nagusia izan zen eta beranduago 2006an CAF taldeko kontseilari delegatua izatera pasa zen. Gaur egun, konpainiako presidente ez-eragilearen ardura du bere gain, 2021an hartu zuena. Bestalde patronalaren ordezkari nagusietako bat izan da azken urteotan zehar, modu aktiboan parte hartu bai du lurraldeko elkarte ekonomiko nagusietako zuzendaritza organoetan, kide gisa, besteak beste, Adegia eta Confebask patronaletan.

Urrezko Domina emateko ekitaldia 2024ko urtarrilaren 12an egingo da, baina Gipuzkoako Foru Aldundia jada jakinarazi du berari hemango diola sari hau ohar baten bitartez. Ohar honetan lurraldearen «garapen ekonomiko, teknologiko eta sozialari egindako ekarpen pertsonalagatik» eta «gure industriaren izen ona nazioartean zabaltzeagatik» hautatu dutela urrezko domina jasotzeko jakinarazi dute. Era berean, «Gipuzkoaren baliorik onenak eta enpresa sareak ongizateari eta gizarte kohesioari» egiten dion «ezinbesteko ekarpena» ordezkaten duela adierazi dute.

---

<https://eh.lahaine.org/andres-arizkorreta-caf-eko-presidentek>